

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3810

3121/2026 EBAZPENA, maiatzaren 19koa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Barne-medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko burua kargutik kentzen baita, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuan.

382/2022 Ebazpenaren bidez, Alfonso Gutiérrez Macías jauna izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESIko Barne-medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko buru (2022ko apirilaren 7ko EHAA, 70. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.— Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtu ESIko Barne-medikuntzako Zerbitzu Sanitarioko buru Alfonso Gutiérrez Macías jauna kargutik kentzea, berak hala eskatuta, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.— Ebazpen honek 2026ko martxoaren 13ko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Ebazpen hau EHAAn argitaratzea, eta interesdunari eta Bilbo-Basurtuko ESlari horren berri ematea.

Laugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2026ko maiatzaren 19a.

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.